

## Markos Gimeno, palindromogilea

# «Artea da, beraz literatura izan behar da?»

Badira hamar urte ermuarra (Bizkaia, 1974) palindromoaren atzaparretan erori zela. Hasieran berarentzako baino ez zituen sortzen, gero blogean jartzera ausartu, eta orain, “autore erotua”k palindromozaleentzako ariketak prestatzen ditu sareko txokoan.

Testua eta argazkiak:  
ONINTZA IRURETA

### Nola hasi zinen?

Irratia entzuten ari nintzen eta liburu baten kontura palindromoak [aurre-raka eta atzeraka berdin irakurtzen diren hitzak eta esaldiak] aipatu zituzten, erdarazkoak. Aspertuta nengo eta euskaraz probatzen hasi nintzen. Lehenengo irudipena izan zen euskaraz ezinezkoa izango zela, hainbeste “tz”-rekin. Harritu nintzen zeren arratsalde hartan atera nituen batzuk eta nahiko onak. Adibidez: “asto hitzak azti hotsa”, “esanik erruz egi bat ta bi gezurrekin ase”.

### Nola egiten dira?... Ala sekretua da?

Saiatzea da.

### Sena behar al da?

Jartzea da eta gustura egitea. Erdaraz badago palindromo bat “*atrapa y aparta*”. Horrek definitzen du nola-bait palindromoa zer den, edo engantxatzen zaitu edo atzera botatzen zaitu.

### Nolakoak gustatzen zaizkizu, luzeak, motzak?

Politenak txikiak dira, ikusi egiten duzu zelan daukan buelta. Badaude



testu luzeak hasieratik bukaeraraino palindromoak direnak, baina ez duzu ikusten.

### Luze-luzeak esan nahi duzu?

Bai. Euskaraz 75 bat hitzeko elkarriketa daukat: gaixoa sendagilearengana joan da zakil bana sudurzuloetan trabatuta dituela. Haien arteko elkarriketa surrealista sortu nuen. Luzea kuriositate

moduan ondo dago baina gehiago gustatzen zaizkit txikiak: “atara zarata”, “kaosaren eraso” –rock talde batek izentzat hartu zuen gero–.

### Noiz sortu zenuen lehen palindromoa?

1998an. Hasieran afizio ezkutua zen. Ez nintzen ausartzen erakustera. Hala-ko batean, 2000. urtean, Anjel Lertxundik *Berriako* zutabea palindromoei buruz idatzi zuen. Euskarazko pare bat adibide jartzen zituen eta nik beste batzuk bidali nizkion. Erantzun zidan eskertuz, eta esanez egingo zuela zutabe bat nire palindromoekin. Horrek motibatu ninduen, “Anjel Lertxundiri gustatzen bazaio hau gauza serioa da, edo behintzat errespetagarria” pentsatu nuen.

### Blogean daukazu palindromoak.

Blog pertsonala zena palindromoen gune bihurtu da. Palindromoak sartzen hasi nintzen eta orain asmaketa ariketak jartzen ditut. Badago talde txoa erantzuten duena eta ni gustura. Estilo honetako ariketak daukat blogean: Atera palindromoa Bogart hitzarekin. Nik ondokoa sortua dut:

“Nik eta Bogartek ke trago batekin”.

### Palindromogileen nazioarteko kongresuan euskaldun bakarra izan zinen. Bakarra al zara?

Blogaren inguruan dabilzanek ariketak egiten dituzte baina sortu ez, edo blogean behintzat ez dituzte erakutsi. Klub palindromikoaren *Semagames* buletinera Sopelako Juan Sanabriak gaztelaniaz gain, noizean behin euskaraz bidaltzen du palindromoren bat.



Markos Gimenoren palindromo gustukoenetakoa da goikoa, horregatik darama besoan tatuatuta.

### Nongoak dira palindromogile gehienak?

Gehienak katalanak dira, tradizio handia dago Katalunian eta katalanez palindromo asko dago eginda. *Semagames* batez ere gaztelaniaz da, baina katalanez ere asko publikatzen da.

### Zaletasun bera duzue, baina hizkuntza diferentean sortzen duzue.

Klubaren 20. urteurrena zela-eta egindako I. Kongresuan, irakurketa egin genuen gaztelaniaz, katalanez eta nik euskaraz. Kuriosoa izan zen.

### Izan ere, haiek ez zuten euskarazkoa ulertuko, baina makal irakurri gero agian harrapatuko da palindromoa dela.

Zer esan nahi zuen azaldu egiten nuen, eta bai, esandakoa simetrikoa denez harrapa daiteke gauza bera esaten ari zarela. Elorrioko lagun batzuekin proba egin nuen; palindromoa grabatu eta gero grabazioari buelta eman, atzeraka entzuteko. Berdin entzuten da. Beno, beti ez. Esate baterako, “baino” hitzeko “n”-a aurreraka eta atzeraka ez da berdin ahoskatzen. “Inori” hitzarekin beste hainbeste gertatzen da.

### Mihiluze saiorako ez dituzu proposatu palindromoak?

Harremana badaukat Kike Amonarriekin-eta. Behin baino gehiagotan komentatu dituzte palindromoak programan.

### Palindromogile hitza erabiltzen al duzu beti?

Jolasean hasi eta “aztihatza” palindromoa eta “hitzpilu” okurritu zitzaizkidan, baina normalean palindromo hitza erabiltzen dut, uniberttsala da-eta.

### Kongresuko eztabaidetako bat izan zen palindromolaritza literatura ote den.

Zer dira palindromoak, atzetik aurrera irakurtzen diren hitzak baino ez, ala balio literarioa dute? Artea da, hitzekin egiten den sorta.

**“Proba egin nuen;  
palindromoa grabatu eta  
gero grabazioari buelta  
eman, atzeraka entzuteko.  
Berdin entzuten da.  
Beno, beti ez”**

kuntza, beraz, literatura izan behar da? Horixe palindromoa definitu nahirik egindako eztabaida. Hitz jokoja besterik ez da? Hitz joko soilaren esparrua zabaltzen doa, testu luzeak, irudiak txertatzea... Eztabaidan ez ginen ondorioetara iritsi.

### Ez dago denbora-pasa liburuxkarik palindromoekin?

Asmoa banuen *Berrian* edo ARGIAN, denbora-pasetan, palindromo ezkutuaren txokoa egiteko. Gero blogarekin hasi nintzen eta oso gustura nago.

Blogean zein adinetako zaleak dituzula uste duzu, zeren euskaraz alfabe-

### tatua izatea garrantzitsua izango da.

Izan behar da jende alfabetatua eta idazten duena. Nik pentsatzen dut euskaraz idazten duten idazleak inoiz saiatu direla palindromoak egiten. Beste gauza bat da gehiago dedikatzea, baina saiatu, seguru saiatu direla.

### Baina ez dute aitortu.

Ez dakit, lortu dutenaren arabera izango da (kar, kar, kar).

### Hitzekin bezala melodiekin ere egin daitezke palindromoak, eta marrazkiekin ere bai. Bazabiltza esparru horietan?

Musikarekin ez naiz saiatu, ez bada grabazioari buelta ematea. Baina badago musika palindromikoa egiten duenik, hau da, partitura simetrikoak sortzen dituenik. Autore klasikoek adibidez. Jazz palindromikoa duen diskoa ere badut. Ez badi-zute esaten ez zara konturatzen musika palindromikoa entzuten ari zarela.

### Palindromiaren Harri Aroan gaudela esan zuen kongresuan norbaitek.

Pere Ruizek. Marrazkiekin, melodiekin... badagoela palindromoen eremua zabaltzea, hori esan nahi zuen.

### Ez dira palindromoak, baina twitterren “hitzokei” etiketapean hiztegia ari zarete osatzen.

Hitza eta definizioa asmatu egiten ditugu edo hitz bat hartu eta definizio katxondoa jartzen diogu. Adibidez, “barrekada”: umoregileen lubakia, “gerrikoa”: Garzonek ogaindik itxi ez duen tabegna, “asma”: gaixotasun imajinarioa, “andré guison”: frantziar jatorriko transexuala. ■

### Lotura interesgarriak:

Bere bloga: [www.blogak.com/zerorajasoa](http://www.blogak.com/zerorajasoa)

Nazioarteko Kluba:

[www.albaiges.com/cpi/cpi.htm](http://www.albaiges.com/cpi/cpi.htm)